

9. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Bost kide gara TrustworthyBag-en negozioa ondo funtzionatzeko parte hartzen dugunak: Koldo Zaton, Lavinia Stanciu, Maria Martin, Tania Fernandez eta Janire Corrales. Janire Corrales kontablea da, Lavinia Stanciu diseinatzailea eta webgunea eramaten duena da, Maria Martin motxilaren banaketak kontrolatzen ditu, Tania Fernandez produkzioan aritzen diren langileak kontrolatzen ditu eta Koldo Zaton enpresaren guardia da. Bestalde, beste langile gehiago kontratatu ditugu, motxilaren produkzioan aritzeko eta hauek banatzeko.